


436. ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2023KO-AZAROA

MAXIXATZEN

GUKA




BARNE LANGILEAK

LANERA LOTUAK

www.urrategiinteriorismo.com
kapota irekia 9 libur darguen 27

PROIEKTUAK
OBRAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



3 logela · 1 bainugela · 80m²
Etxebizitza salgai
Guardiakalean



Salgai
175.000€



3 logela · 1 bainugela · 90m²
Gutziz kanpoaldera begira dagoen
etxebizitza Julio Urkixo Etorbidean



Salgai
175.000€



MAXIXATZEN 436

2023-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
EDURNE MARZANA.

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Korapiloa Aitziber Arzallus, <i>Futbola.</i> | 32 | Iritzia Lander Albizuri,
<i>Gerra algoritmokoaren amarauna.</i> |
| 6 | Hitz bitan Axun Izagirre, irakaslea. | 33 | Zakelmari |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Javier
Beristain, <i>Aittola.</i> | 34 | Erretratua Xanti Artetxe,
helduen danborradan zuzendaria. |
| 10 | Iritziak Josune Herrarte, <i>Hizkuntza
ekologiaz</i> ; Yolanda Larrañaga,
<i>Barne galderak.</i> | 38 | Plazan Bazan. |
| 12 | Erreportajea Urruneko etxean
<i>behargin.</i> | 40 | Klik! Erlojuaren zaindaria. |
| 20 | Elkarriketa Aritz Aranbarri,
futbolaria. | 44 | Iritzia Maite Lopez, <i>'Rara avis'.</i> |
| 24 | Guka. Jaso eta eman,
<i>borondate osoz.</i> | 46 | Euskara Aitor Arruti,
<i>Bizi beharrean, beharrean bizi.
Bertsoa paperean.</i> |

MAXIXATZEN

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
azkoitia@ukt.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Iraia Oteiza
Aitziber Arzallus
Mailo Oiarzabal
Ane Olaizola

Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak**
Javier Beristain
Josune Herrarte

Yolanda Larrañaga
Lander Albizuri
Naia Arrizabalaga
Gorka Larrañaga
Maite Lopez
Aitor Arruti
Unai Izagirre

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



Babesleak:



PUBLIZITATEA

EGUZKI

belardencia
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 • 943-00 34-47 • AZKOITIA

Uribarri 9 bis • 943-15 00 20 • AZPEITIA

Web proiektuak
Software Ingeniaritza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

etk

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekтураestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
Sport

Iturrutia, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 57 • 943-85 20 88
AZKOITIA

ttakun

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Naike
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA S AZPEITIA
972 17 88 51



Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA
TABERNA

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

ATRASKUA

943-85 31 70

LATZ
TABERNA

ARTESU/POZAK
ENTZALADAK
PINTXOKAK
PLATER KONBINATURAK
RADIOAK
OGITARTEKOAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOLBU ETA ARDO ERORDI
PILFURGABEAK
LARRUNSKATEAN 06:00 ARTE IRERITA
KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

zurt

OGITARTEKOAK • SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
ENTZALADAK • RAZIOAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA
ZUZENEKO EMANALDIK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75



ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatika@gmail.com

ZERBER
BURDINDEGIA

BEHAR DUTZUNERAKO ALOR GUZTETAKO GAIAK AURKUTUNO DITUZU
GURE BURDINGIAN, INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BRIKOLAJEA ETA ABARREKO TREBNERIA: HALA NOLA,
TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA, 99 • 20720 AZKOITIA • 938 36 31 25
www.ferreteriazerber.com

Futbola



AITZIBER ARZALLUS

Futbola. Munduan jarraitzailerik gehien dituen kirola izanagatik, fama txarra du. Ia denok nahi genuke gure etxetik Igor Zubeldia bat edo Aritz Aranbarri bat irtetea, baina, gero, gaztetxoek erreferentetzat dituzten izarrei buruz gaizki esaka jarduten dugu. Partida jakin batzuen bueltan sortzen diren iskanbilak kritikatzan ditugu, eta gero, seme-alaben partidak ikustera joaten garenean, zenbait gurasok lotsa ematen dugu. Etxean hurrengo Messi dugula uste dugu, eta konbokatu gabe gelditzen den aurreneko partidari, astero eta musu truk dozena bat ordu gure seme-alabei eskaintzen dizkien entrenatzaileak sekulakoak eta bi esaten ditugu. Dena dakigulakoen, ezer ez dakigu. Halakoak gara, kontraesanez betetakoak, eta hipokritak.

Baina gurasoen mundutik gaztetxoenera jaitsita, nik ez deritzot futbola horren kaltegarria denik. Ez behintzat beste edozein taldeko kirol baino kaltegarriagoa. Egia da maila batzuetatik aurrera lehiakortasun handia dagoela. Batzuek taldean sartzeko, beste batzuek kanpoan gelditu behar dutela. Baina bizitza bera ere ez al da horrelakoxea? Denok ez dugu denerako balio, eta horretaz jabetzen joatea ere beharrezkoa iruditzen zait. Inori ez zaigu gustatzen gurea etxera negarrez etortzea, baina dena ez da poza eta alaitasuna izango beti, eta nire uste apalean, tristura eta frustrazioa ere txikitatik kudeatzen ikasi beharreko sentimenduak dira.

Futbola eta batez ere taldean aritzea balio on askoren iturri direla iruditzen zait. Nori ez zaio gustatzen talde bateko kide dela sentitzea? Nori ez, balioetsia sentitzea? Denek ez dute aurrenekoan asmatuko, ados. Aritz Aranbarri berak ere ez. 13 urterekin Realak deitu zionean, sekulako poza hartuko zuen ziurrenik, baina asteen hirutan Zubietara entrenatzera joaten hasi, lekuz kanpo sentitu, eta uztea erabaki zuen. Realak utzi eta Anaitasunara bueltatzea. Baina horregatik ez zion futbolekin jokatzeari laga. Handik hilabete gutxira deitu zioten berriz, eta bigarren saiakera egitea erabaki zuen, eta infantil txikitik lehen mailara, Realak dituen kategoria guztietan lehiatu du. Lehen taldearekin minutu gehiago jokatzeko nahiko zukeela? Noski baietz, beti gehiago nahi, baina jokatuak horiei balioa ematen jakitea ere gauza handia da.

Realako etapa bukatuta, Leganesen dabil egun, bigarren mailan, baina gustatzen zaiona egiten, futbolekin jolasten. Madrilgo taldeak deitu zionean sekulako poza hartu omen zuen, Realak umetan deitu zionean hartu zuenaren parekoa agian, baina poza poz, Madrilera bizitzera joateak beldur pixka bat ematen ziola ere aitortu du. Lehen aldiz etxetik kanpo, dena berria, dena espainolez... ez da gutxiagorako. Baina barruan zeraman korapiloa askatuta, zoriontsu dago mutila, eroso sentiarazi dutelako eta lagunak egin dituelako. Horiek ere ematen baititu futbolak: lagunak. 25 urterekin eta 13rekin. ■■■

**FUTBOLA ETA BATEZ
ERE TALDEAN ARITZEA
BALIO ON ASKOREN
ITURRI DELA
IRUDITZEN ZAIT**

Axun Izagirre: "Klariona eta arbela atzean geratu dira"

TESTUA ETA ARGAZKIA: IRAIA OTEIZA

Axun Izagirrek (Azkoitia, 1960) betidanik izan du irakasle izateko grina, eta nahi hori bere ofizio bilakatzea lortu du. 41 urtez izan da Floreaga ikastetxeko irakasle, gehienbat Haur Hezkuntzako lau eta bost urteko umeen andereño. Baina gutxi falta zaio ofizioari agur esateko, datozen Gabonetako oporrekin batera hartuko baitu erretiroa.

Askok gaztetatik argi izaten dute zein lan egin nahi duten. Zure kasuan ere hala izan al zen?

Hasieratik izan nuen garbi irakasle izan nahi nuela, umeak betidanik gustatu izan zaizkidalako. Gehiago kostatu zitzaidan Haur Hezkuntzako irakasle izan nahi ote nuen erabakitzea. Baina, azkenean, txikienekin egin dut nire lan ibilbide osoa.

Noiz eta non hasi zinen lanean?

1982an hasi nintzen lanean, Azpeitiko Ikastolan, hamabost eguneko ordezkapen bat egiten. Hori amaitu eta Floreagan hasi nintzen irakasle lanetan. Hasieran Lehen Hezkuntzan aritu nintzen, eta gero pasa nintzen Haur Hezkuntzara. Urtebeterako kontratua zena 41 urtez luzatu da, azkenean.

Nola gogoratzen duzu Floreagan lanean hasi zinen lehenengo egun hura?

Sekula ahaztuko ez dudan eguna da. 36 ikasle neuzkan gelan, ume asko nire zaintzapean. Urduri nengoen, eta ongi oroitzen naiz beste irakasle batek laguntzen zidala lehen urte hartan. Gogorra izan zen hasieran, baina nik uste guztiontzat izaten dela zaila lehen urtea. Tamaina hartu nion gero, umeak ere ezagutzen nituen, eta errazagoak izan dira gainerako urteak. Esperientziak asko laguntzen du irakaskuntzan.

Azkoitiarra izan, Azkoitian bizi, eta lan ere Azkoitian egiten duzu. Floreagatik pasa diren ume eta ez hain ume askok ezagutuko zaituzte. Kanean ere nabarituko duzu hori.

Oroimen ona dut eta oroitzen naiz ikasle ohiekin ere, fisikoki oso aldatuta ez badaude behintzat. Kanean ikusitakoan burura etortzen zaizkit pertsona hori nire ikasle zeneko garaiak, eta aise gogoratzen

dut nor zen bihurria, edo nor lotsatia. Orain, ikasle ohi horietako askoren seme-alaben andereño izatea egokitu zait, eta polita da hori.

Umeak helduak baino esker onekoagoak direla esango al zenuke?

Dudarik gabe. Maitasun handia transmititzen dute umeek, izan gelan zein kalean. Gerritik heltzean, musu bat ematean, barre egitean edota agurtzean, sentimendu asko adierazten dituzte. Nik uste Haur Hezkuntzako irakasleona oso eskertutako lanbidea dela.

Zer aldatu da gehien 41 urteotan?

Aldaketa ikaragarria egon da, bai teknologiari dagokionez, baita irakaskuntzako metodoei dagokionez ere. Klariona eta arbela atzean geratu dira, eta pantailak eta ordenagailuak dira nagusi.

Kosta egin zaizu aldaketa horietara egokitzea?

Nahiko ongi moldatu naiz, baina kosta egin zait, esaterako, gela irekietara ohitzea. 20 urterekin errazago izaten da umeak alde batera eta bestera mugitzen ikustea eta entzutea, baina, adinagatik edo, orain isiltasuna gehiago eskertzen dut.

Aitzitik, bada berdin jarraitzen duen zerbait?

Umea haserretu egiten da ezetz esandakoan edo norbaitek bere jostailua kentzen dionean. Hori ez da aldatu.

Zer eman dizu irakaskuntzak?

Jende asko ezagutzea, ume askori laguntzea, guraso askorekin harremana izatea... Uste dut lanbide honek asko eman didala. Lanera gustura joan izan naiz beti, eta ikasleei zerbait berria irakatsi diedanean ere pozik sentitzen naiz. Ume batek urtebetean zer ikasi duen begira jartzen naiz, eta nik irakatsita pauso handiak eman dituela ikusteak asko betetzen nau. Esaterako, ume batentzat zaila da bere izena idazten ikastea, eta hori lortu izanak esanahi handia du niretzat.

Baina bukatzera doa hori. Pentsatu al duzu erretiroa hartzean zer egingo duzun?

Lasai hartu nahi dut. Momentuz jubilazioa dator, eta gero, gerokoak. Egia esan, erretiroa hartzearena pixkanaka ari naiz barneratzen; pena handia ematen dit. ■



Aittola

ARGAZKIA ETA TESTUA:

JAVIER BERISTAIN

Behe lainoak pagoak
besarkatzen dituenean,
behorren zintzarriek mendiko
isiltasuna apurtzen dutenean,
belarrak hezetasun usaina
mendian zabaltzen duenean,
nire bakardadea naturarekin
partekatzen dudanean...
Orduantxe sentitzen naiz nire
paradisu txikietako batean...
Aittolan! ■■■







JOSUNE HERRARTE

Hizkuntza ekologiaz

Hizkuntza ekologia zientzia bat da, ekologia bezala; dagoeneko hamarkada batzuk badituena eta hainbat adituk gugana ere ekarri dutena. Ez naiz orain luzatuko aditu horien izenak eta bakoitzaren ekarpenak zehazten, ez eta hizkuntza ekologiaren hari mutur guztiak hemen askatzen ere, ez lirateke tarte honetan kabituko eta. Laburpen modura Kutxa Ekogunearen webgunetik lapurtutako hitz hauek ekarri ditut hona: "Hizkuntza guztien berdintasunetik abiaturik, hizkuntza bakoitzaren garapen jasangarria lortzea du helburu hizkuntza ekologiak. Ekologiaren ikuspegia hizkuntzetara ekartzen du hizkuntza ekologiak, eta hizkuntza aniztasuna kudeatzeko eta euskara biziberritzeko paradigma berri gisara planteatzen da".

Hizkuntza ekologiak dio, hizkuntzak iraungo badu, bere ekosistema zaindu behar dugula. Hau da, ekologian edozein espezie babesteko bere ekosistema zaintzea behar den moduan, zaindu egin behar da hizkuntza bakoitzaren ekosistema ere. Bi ikuspegitatik: bere hiztun komunitatean, hurrengo belaunaldiari begira alde batetik; eta bestetik, hizkuntzak ukipen egoeran daudela kontuan hartu behar da, hau da, hizkuntzen arteko harremanen egoera ere zaindu behar dela.


Zer da ekosistema hizkuntzaren kasuan? Hau da, zein elementu dira, denak bilduta, hizkuntzak irautea eragiten dutenak?

- Babes ofiziala: oso garrantzitsua da, baina ez politikatik bakarrik ikusita; babes ofizial hori, hedabide, justizia, eta beste hainbat ikuspegitatik ere

behar da. Denok izango dituzue gogoan Laudio, Irun eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren auziak, kasu bakoitzaren xehetasunak gorabehera, hiruretan ere epaileek baliogabetzat jo zuten zerbitzu publikoak eskaini behar zituzten langileek euskara jakin beharra. Kasuren batean gainera, argudio aski *naif*eta barregarriarekin, negargarria eta iraingarria ez balitz, jakina. Eta ezin aipatu gabe utzi, lerro hauek idazten ari naizela jakin duguna, azken aizkorakada, euskararen aldeko politika publiko guztiak ukatzen dituen epaia. (Azaroaren 4an Bilbora joan beharra dago, dudarik gabe).

- Estatusa: hemen ere, politikak baino gehiago, gizarteak berak hizkuntzari ematen dion estatusa hartzen da kontuan, esparru ekonomikoan, industrian

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



YOLANDA LARRAÑAGA

Barne galderak

Baliteke pixka bat arraroa izatea batzuentzat, baina aitortu beharra dut bakardade isilean aurkitzen naizen une lasai eta goxoetan, neure barnean sartu eta nirekiko galderak egiten hasi ohi naizela.

Erantzunik gabeko galderak dira askotan, eta erantzun desberdineko galdera berberak beste batzuetan. Seguruenik, nire aldartearen arabera aldatuko dira erantzunak.

Egun hauetan, hala ere, ehunka haur txiki jaioberri errugaberen begirada goibelek betetzen dituzte nire pentsamenduak eta amets gaiztoak. Ukraina, Errusia, Israel, Palestina edo antzeko lurraldeetako haurren irudiak ditut kendu ezinean nire buru eta bihotzean. Begiak malkoz betetzen zaizkit pentsatze hutsarekin horietako edozein lurraldeetan biziko banintz, nire seme edo alaba izan zitekeela eraila. Krudelki eraila, gainera. Gupida gabe kenduaz bizitzeko baimena. Ezin ulertu bizitza ezagutu ez duen haurtxo txiki errugabe horri nola kendu dakioken bizitza hain erraz eta bortizki. Nola kendu bizitzeko eskubidea jaio eta berehala?

Heriotza horiek agintzen dituen edonork, egin ahal dezake lasaitasunez lo? Zer motatako animaliaz osatutako gizartea dugu?

Beraz, azken egunetan galdera asko darabilzkiz jira eta bira nire barnean, baina ez dut erantzunik aurkitzen. Ulertezina, onartezina, jasanezina eta abar luze bat izan daitezke datozkidan erantzun bakarrak. ■

prestigio mailan... Martxelo Otamendik Azkoitian oraintsu emandako hitzaldian aipatu zuen elite euskaldun eta euskaltzale bat ikusten zuela berak oso epe laburrean gure gizartean. Enpresa bat irudikatuta, duela urte gutxi tailerrean euskaraz ari ziren, eta bulegoetan, gazteleraz. Berak zioen gaur egun bulegoetan euskaraz ari direla alor guztietako enpresetan eta jardueretan, eta tailerrean, gero eta gehiago gazteleraz. Gure gazteak euskaraz formatuta datoz unibertsitatetik diziplina guztietan, erraz irudikatu liteke beraz, agertoki hori. Orain, elite euskaldun hori zenbateraino izango da euskaltzale? Zuzendaritza batzordeetan euskaraz imajinatzen ditut haizea alde duten bitartean, baina euskaraz hala hola moldatzen den bat azaltzen den momentuan, edo

publizitate estrategia indartsu bat martxan ipini nahi duenean, dena delako enpresa edo erakunde horrek zenbateraino eutsiko dio euskarari bera jardunean?

- Demografia: hiztun kopurua bai, baina batez ere kopuru hori non kokatzen den, zein eremu geografikotan, zenbateraino dagoen barreiatua edo kontzentratua. Ideia horrekin lotuta, *arnasgune* kontzeptua sortu da, hau da, euskaraz lasai bizi litekeen gunea arnasgune litzateke euskararentzat, nolabaiteko ekosistema ideala-edo esango genuke. Kasu horretan ere, ordea, azken ikerketak eta euskararen erabilera neurketak aztertzea besterik ez dago ikusteko gure hizkuntzak atzerakada handiena egin duen eremuak herririk euskaldunenak direla. Eta zuk irakurle, nola ikusten duzu euskaren ekosistema? ■





Urruneko etxean behargin

Aberatsak ziren lehen zaintzarako eta etxeko lanetarako barne langileak izaten zituztenak. Orain, zaintza behar duten etxeko adinekoei laguntzeko langile familiek ere jotzen dute horietara. Beharrak eta langileen jatorriak aldatu dira, berez gogorak diren baldintzetan ere izan dira gorabeherak, baina emakumeak jarraitzen du barne langile izaten.

Testua eta argazkiak: **Ane Olaizola eta Mailo Oiarzabal**

Umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko neskame lanetan aritu ziren asko joan zen mendean, izan herriko beste etxeren batean edo inguruko hainbat hiritan. Bazen oso gazte zirela maleta hartu eta beste familia bat zerbitzatzeko atzerrira joan zenik ere. Horretan aritu zirenek diote lanbide lotua zela; lan asko eta denbora libre gutxikoa. Neskameen baldintzak aldatzen joan dira garaiazen arabera, eta koiuntura ere bestelakoa da: adinekoak zaintzen dituzte gaurko barne langileek. Egun, migratzaileak dira horiek, baina batik bat, emakumeak jarraitzen du zaintzailea izaten.

Inmaculada Azpitarte (Azkoitia, 1941) duela 65 urte aritu zen neskame lanetan, eta memorian ondo gordea ditu orduko bizipen guztiak. 18 urte zituela, Martirietako Agarre Zahar jaiotetxea utzi zuen hark Caracastik Euskal Herrira itzuli berri zen familia dirudun baten etxean lan egiten hasteko. Orduko beste neskame askok bezala, Azpitartek ere Donostian jardun zuen lanean, sendi hark Kontxan zuen etxebizitza batean. "Senar-emazteak eta beraien zortzi seme-alabak bizi ziren etxean, eta emaztearen ahizpa ere



haiekin bizi zen, bi seme-alabekin, baita bi andreen aita ere". Haiei guztiei zerbitzua emateko, hiru langile zituen familiak: dontzeila, umezaina eta sukaldaria. Sukalde lanetan aritu zen Azpitarte.

Guztira, hamazazpi lagun bizi ziren etxean, eta egunero, denentzat otorduak prestatzea zegokion Azpitarteri: "07:00etako mezara joaten ginen, eta handik itzulita, umeei gosaria prestatzen nien. Nagusiak, berriz, 09:00-10:00k aldera jaikitzen ziren, eta haiei ere gosaria jartzen nien gero: kafesnea, tostadak, etxean egindako marmelada... Bazkaria ere bi ordutan ematen genuen: bata umeen ordutegian, eta bestea, nagusienean". Langile bakoitzak bere ardurak ondo zaindu behar zituen: "Mirabearen lana zen etxea garbitu eta jasotzea, arropak garbitzea, nagusiei zerbitzatzea... Nik jana prestatzen nuen eta mirabeak eramaten zien, uniformeak jantzita, kofia zein eskularru zuri eta guzti".

Horrenbeste pertsona izanda etxean, langileek eguna lanpetuta igarotzen zuten: "Guztiak ere jatun onak ziren, eta gainera, gonbidatuak izaten zituzten arratsalde askotan. Halakoetan, zenbat opila eta bizkotxo egin behar izaten genituen... Normalean, Bretxako azokan egiten genituen erosketak, baina behin Errezileraino joan ginen, nagusiek hango sagarrak jan nahi zituztela eta. Garaia zenean ere, eltze osoak betetzen genituen albertxikoz, marmelada egiteko". Lan asko egiten zuten beharginek, eta nagusiek "diziplina handia" eskatzen zieten. Dena den, haiei beldurrik ez zietela azaldu du azkoitiarrak: "Onak ziren

Inmaculada Azpitarte.



Edurne Marzana.

gurekin. Zerbait gaizki eginda ere, haserrerik ez genuen jaso". Hiru langileek elkar laguntzen zutela azpimarratu du Azpitartek.

Langileek etxeko gainontzeko kideen otordu berberak jaten zituzten, baina aparte. Hain zuzen, etxebizitzan bereizitako departamentu bat zuten beraiek bizitzeko: "Langileok bainugela bat genuen, dutxa, komun eta harraska txiki batekin. Dontzeilak eta nik logela berean egiten genuen lo, eta umezainak, berriz, haur txikienarekin".

Trukean, hilean 1.000 pezeta (sei euro) jasotzen zituen Azpitartek, eta hamabostean behin hiru ordu izaten zituen libre. "Hiru neskak txandak egiten genituen librantzak egiteko. Nik arratsaldea banuen jai, besteetako batek aurreratzen zuen afaria. Umezainak jai zuenean, berriz, ni egiten nintzen haurrak kargu". Azpitartek gogoan du arratsaldea libre izaten zuenean senargaia joaten zitzaiola motoan bisitan, eta Alde Zaharrean buelta bat egiten zutela, 20:00etarako etxera itzuli aurretik. "Orduan, dena horrela zen. Hala behar zuela izan esaten ziguten".

Urtean behin edo bitan bisitatzen zuen baserria Azpitartek, eta biharamunean itzultzen zen autobusez Donostiara. Gabonak ere lanean igarotzen zituztela adierazi du: "Bakoitzak bere lekuan afaldu eta lan guztiak amaitzen genituenean, guztiok elkarrekin egoten ginen egongelan, turroia jan eta musika entzuten". Hain zuzen, neskame izan zen lau urteetan, oporrak behin izan zituela azaldu du hark, eta orduan, Donostiako etxeko bi txikienak eraman zituela baserrira, atsedenerako astea berarekin igarotzera.

Ezkontzerako utzi zuen lana Azpitartek, eta gogoan du ezkontzara ere Donostiako familia hark lagundu ziola.

15 urterekin atzerrira

Edurne Marzanak (Elorrio, Bizkaia, 1957), berriz, 70eko hamarkadan jardun zuen neskame moduan lanean. 15 urterekin atzerrira joan zen, umeak zaintzera, espero gabe. "Elorrioko ikastetxea itxi egin zuten, eta Durangon hasi behar nuen ikasten. Nik ikasteko gogo handirik ez, eta Saloun (Katalunia) neskame lanetan zebilen lehengusu batek animatu ninduen hara joateko, han bizi zen Algortako (Bizkaia) familia bat langile baten bila zebilela eta". Haren babesarekin joan zen Marzana Kataluniara, Bilbon tren hartuta, bakarrik: "Etxean esan zidaten neuk pentsatzeko zer egin, eta ni abenturara joan nintzen. Hura izan zen egiten nuen lehen irteera. Urduri nengoen bidaia bakarrik egin behar nuelako, baina ez zen trauma bat izan".

Azkoitiko bizilagunak lau urte igaro zituen familia hartako hiru- seme alabak zaintzen, sendi harekin bizi izan zen bitartean. Senarra kimikaria zen eta emaztea etxeko andrea, eta gizonaren lan kontuengatik, aldiro bizitokiz aldatzen ziren. Astelehenetik igandera egiten zuen lan hark ere, batez ere hiru seme alaben premiak asetzen: haien logelak eta arropak txukundu, umeak eskolara eraman, handik jaso, kalean zaindu, oheratu...

"Umezain aritzen ginen bost euskaldun geunden han, lehengusua barne. Umeak hartu eta elkarrekin ateratzen ginen kalera. Egia esan, jende asko ezagutu nuen han, eta zoragarri egon ginen". Salouko oroitzapen ona du Marzanak, baina, era berean, lanbidea "oso lotua" zela dio: "Horixe zen txarrena. Soilik ostegun eta igande arratsaldeetan libratzen genuen, eta 22:00etarako etxean egon behar izaten genuen".

Marzanak ere ondo gogoan du jasotzen zuen ordainsaria: 9.000 pezeta (54 euro). "Pentsatu nola aldatu diren gauzak. Baina aseguruia ere banuen, eta garai hartan, neskame gutxi zuten hori". Azkoitiko bizilagunak azpimarratu du "familia oso jatorra" zela berea, eta elkarrekin zuten harremana ere abegikorra zela gaineratu du: "Ez ninduten baztertzen neskamea nintzelako. Elkarrekin egoten ginen: otorduak batera egiten genituen, eta gauetan, umeak lotaratu ondoren, senar-emazteak eta hirurok batera egoten ginen egongelan. Bat gehiago nintzen etxean". Zentzu horretan, zorionekoa sentitzen da Marzana, garai hartan "okerrago" lan egiten zuten neskame batzuk ezagutzen zituelako: "Esaterako, etxerako sarbide propioa zuten ezagutzen nituen neskame batzuek. Atetik zuzenean sukaldara sartzen ziren haiek, eta ondoan logela izaten zuten. Otorduak ere familiarengandik bereizita egin behar izaten zituzten, eta etxeko lan guztiak ere beraiei kargu zeuden. Horrez gain, uniformeak eraman behar izaten zuten. Nire kasua hori izan balitz, bestelako oroitzapen bat edukiko nukeen".

Familiako umeak zaintzen aritu zen bitartean, Algortan zein Castron (Espainia) ere egon zen bizitzen Azkoitiko bizilaguna, eta tartean Elorrioko etxera bisitak egiten zituen hark. Hilabete batzuen ondoren, ordean, Milanera (Italia) lekualdatu zen familia,

**AZPITARTE:
"HAMABOSTEAN
BEHIN, HIRU ORDU
IZATEN GENITUEN
LIBRE"**

**MARZANA: "LANEAN
ASEGURUA NUEN, ETA
GARAI HARTAN,
NESKAME GUTXIK
ZUTEN HORI"**



Carmen Hurtado.

eta bestelakoa izan zen hango egonaldia, hangoa hizkuntza ezezaguna izanik, "kosta" egin baitzitzaion egokitzea. "Gogorra egin zitzaidan Milango egonaldia, baina leku eder askoak ezagutzeko aukera ere izan nuen familiarekin". 17 urte zituen Milanera joan zenean, eta urtebete igaro zuen han. Garai horretan ere, astean bi arratsalde edukitzen zituen libre, eta batzuetan, han egindako lagunekin ateratzen zen kalera, baina iluntzen zuenean, ordurako etxera itzuli behar. "Batzuetan, diskotekara joaten ginen, baina 22:00etarako atera egin behar izaten genuen handik. Gaur egun ez dago halako loturarik, baina nik neuk egoera normal eramaten nuen". Osteguna "neskameen eguna" izaten zela ere gogoratzen du hark; "zentzu horretan bai, bereizita geunden". 18 urterekin utzi zion Marzanak umezain izateari, Azkoitiko supermerkatu batean lan egiten hasteko eskaintza jaso zuenean. Familia hura, berriz, Italian geratu zen, baina gero AEBetara lekualdatu zen: "Haiekin jarraitu izan banu, ez dut uste haraino joango nintzatekeenik".

Migratuen beharra

"Lasai eta duin bizitzeko adina baliabide dituenak nekez utziko du bere herria atzerrira joateko", dio Carmen Hurtadok (Totogalpa, Nikaragua, 1971). 2010ean utzi zuen Hurtadok bere sorterrira Europara etortzeko, Nikaraguako "egoera ekonomiko konplikatuak" han bizibidea egitea "gero eta zailago" bihurtuta. Bartzelonan lehengusu bat bizi du, eta hara joan zen hasieran. "Beste herrialde batera eta etxetik milaka kilometrora joatea beti da zaila, toki, jende eta ohitura berrietara ohitzeko denbora behar

da", dio Hurtadok. Aldaketa handi horregatik, herri batetik hiri handi batera joateagatik... "Bartzelonara ez nintzen egin, ez nuen nire tokia aurkitu", azaldu du nikaraguarrak. Esperientzia berrira nahi bezala ezin egokituta Nikaraguara itzultzear zela, Azkoitian bizi zuen lagun batek animatu zuen Euskal Herrira etortzera. "Hau inguru lasaia zela kontatu zidan, herri bat baserri askorekin, gure herriaren antzeko neurrikoa [hamabost mila inguru biztanle ditu Totogalpak]. Probatzea erabaki nuen, eta ikusi nuen horrela zela. Hemen erosoago sentitu nintzen, Bartzelonara ez bezala egokitu nintzen".

2011n iritsi zen Hurtado Azkoitira, eta bertan jarraitzen du, lanean. Nikaraguatik migratutako beste hainbat emakumek bezala, adinekoen zaintzan egiten du lan Hurtadok. Izan ere, Azpitarte edo Marzana familietan barneko langile edo *interna* aritu zirenean ez bezala, gaur egun ez da umezaintza langile horietako gehienen jarduna. Euskal Herriko gizartea zahartzen ari da, bizi itxaropenak gora egin du azken hamarkadetan, gero eta urte gehiago harrapatzen dituzte herritarrek; eta gero eta gehiago dira, halaber, mendekotasunen bat duten eta zaintza behar duten pertsonak. Zaintzaileen artean gehiago nabarmena emakumeak dira gaur egun ere, faktore hori ez da aldatu. Zaintzaileen jatorrian bai egon direla aldaketak. Asko dira bertan sortutakoak ere, baina nabarmen hazi da urte gutxian zaintzan ari diren migratutako emakumeen kopurua, eta barneko langile aritzen direnen artean ia denak, %95, dira migratutakoak. Euskal Herrian bizi diren emakume migratuek osatutako eta horien eskubideen alde lanean diharduen Malen Etxea elkartearen arabera, 2022an 11.000 bat ziren, ofizialki, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan zaintza lanetan ari ziren emakume migratuak. Moltzo horretan paperak dituztenak bakarrik daude, ordea; kopuru horri beste %30 bat gehitu behar zaio Malen Etxekoaren arabera, bizileku baimenik ez eta, ondorioz, lan baimenik lortu ezin eta kontraturik gabe, beltzean ari direnena.

Egun bere egoera bestelakoa da, baina paperik gabe eta legez erregularizatu gabeko egoeratik igaro behar izan zuen Hurtadok ere. Barneko langile aritu zen Bartzelonako egonaldian, barneko langile hasi zen Azkoitian, eta gaur egun ere horrela jarraitzen du. "Zortea" izan duela dio; izan ere, badaki paperik gabe lanean hasten direnei sarri baldintza eskasak onartzea eta egoera gordinak bizitzea ere tokatzen zaiela. Euskal Herrian zaintza lanak egiten dituzten migratutako beste emakume asko bezala, aurrez inoiz lan horiek egin gabea zen Hurtado Europara etorri zenean; Nikaraguan irakasle aritu zen urte luzez. Maistra izateko ikasketetan unibertsitatean esaten zieten ari du gogora: "Irakasleak pailazoak bezalakoak izan behar ginela irakasten ziguten, barrutik gaizki edo artega egon arren, begietan eta ezpainetan irribarrea beti, umeei lasaitasuna eta ikasteko grina transmititzeko". Irakaspen hori zaintza lanerako ere baliagarria izan zaiola dio. "Mendeko pertsona baten ardura duzunean, garrantzitsua da harekin ahalik eta ondoen moldatzea, baina niretzat, garrantzitsuagoa da haren familiarekin ondo konpontzea, elkar ondo ulertzea. Horrek asko errazten du lana".

**GAUR EGUN,
BARNEKO LANGILE
ARITZEN DIREN IA
DENAK, %95,
MIGRATUTAKOAK DIRA**

**HURTADO: "JASOTZEN
DUGUNAZ ASKO
HITZ EGITEN DA,
BAINA EMAN ERE
EGITEN DUGU"**

Migrazio Legeak linboan uzten ditu jatorrizko herrialdeetatik kontraturik gabe Espainiara lan bila datozenak; gutxienez lehen hiru urteetan, kontraturik gabe aritzera behartuta daude. Zaintzan ari diren emakumeen kasuan, lege egoera erregularizatu ahala, lanpostuak aukeratzeko erraztasun gehiago ere badituzte; horrela, "orduzkako lanak" eginez, "barne langileek baino gehiago" irabaz dezaketeela dio Hurtadok, eta horrela egiten dute askok. Berak, hala ere, barne langile izaten jarraitzen du.

Azkoitira iritsi zenean, Nikaraguatik etorritako emakumeak "gutxi" zirela gogoratzen du Totogalpakoak, baina gaur egun dezentez gehiago dira; "asko", gainera, Hurtado beraren herrikoak edo ingurukoak. Han irabaz ezin dezaketeen dirua irabaz dezakete hemen. Nikaraguan batez besteko soldata 500 euro ingurukoa da; prezioak, aldiz, Hurtadoren arabera, "hemengoan gero eta antzekoagoak dira, harrituta gelditzen naiz joaten naizen bakoitzean, zenbat garestitu den dena".

Irabazten duten diruaren zati bat Nikaraguan dituzten senideei laguntzera bideratzea izaten da ohikoena. Horretara datoz, besteak beste. Baina Hurtadok nabarmendu nahi du lan egiten duten tokian ere egiten dutela migratuek ekarpen ekonomikoa eta soziala. "Denetarik egongo da, baina gu lanera gatoz, hemen ordaintzen ditugu alokairuak, geuretzako zein hara bidaltzeko erosten duguna hemen erosten dugu... Jasotzen dugunaz asko hitz egiten da, baina eman ere egiten dugu". Bera eta bere moduan beste asko bakarrik etorri ziren, Europar urte batzutan lan egin eta Nikaraguara itzultzeko asmoarekin. Hori "aldatzen" ari dela uste du Hurtadok: "Azkenaldian gero eta sarriago ikusten ditut Nikaraguatik etorritako familia osoak. Horiek ez dute Nikaraguara itzultzea aurreikusten, bizitza hemen irudikatzen dute".

Datorren urte hasieran unibertsitatean ikasten hasiko den alaba bat du Hurtadok, hark 3 urte zituela etorri zen Europara lanera, eta beste hiru urtetan ezin izan zuen itzuli. "Gogorra izan zen. Eta lehen aldiz etorri nintzenean baino gogorragoa, Nikaraguara lehen aldiz itzuli eta berriro hona bueltatu behar izan nuenekoa". Teknologia berrieekin oso eskertuta dago Hurtado, horiei esker errazagoa baitu gaur egun egunero etxekoekin egotea, distantziatik bada ere. Egunean libre dituen orduen zati handiena alabarekin hizketan pasatzen duela dio. Urte amaieran joango da Nikaraguara Hurtado, alabaren institutuko graduazio ekitaldia ez du "inondik inora" galdu nahi. ■■■



bertako
igogailuak | ascensores

Beretako orotara zerbitzua

100€-tik /hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

2.500 bezerok gugan dute konfiantza


943 903 450 bertako.eus

Ni eta zu batzean
nola sortzen den gua
Ni eta zu solastean,
komunikazioaren sua
Su hori herrira zabaltzea
hedabideon sekretua
Txikiak batzean handi
bilakatzen da bozgorailua

Bat eginda ere,
herriari eginez keinua
Haziz eta haziz dihoa
euskal hitzen putzua
Beti-betikoak gara,
hau duzu heldulekua
Guka aritzea ez baita
hain zeregin konplexua
Horrela kolektiboagoa da
guztion bizimodua

Idazlea:

Ihintza Elustondo



"Realari asko zor diot; futbolari eta pertsona gisa han hazi naiz"

ARITZ ARANBARRI FUTBOLARIA

Hamahiru urtez Realean ibili eta gero, lehen aldiz etxetik kanpo dabil Aritz Aranbarri futbolari azkoitiarra; bi urterako kontratua sinatu du Madrilgo Leganes taldearekin. Realean egindako urteez, Espainiako hiriburuan bizitzen ari den esperientziaz eta etorkizunerako dituen asmoez jardun du.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **utzitakoak**.

Kimuen mailan -12 urterekin- Anaitasunan jokatzeko hasi, eta berehala jaso zuen Realaren deia Aritz Aranbarri (Azkoitia, 1998). Hamahiru urte egin ditu Realean, eta klubak lehiatzen duen kategoria guztiak probatzeko aukera izan du, behe-behetik hasi eta lehen talderaino. Iragan denboraldiaren amaieran, ordea, etapa bati bukaera eta beste bati hasiera ematea egokitu zitzaion azkoitiarrari, eta aurren, lehen aldiz, etxetik kanpo dabil. Madrilgo Leganes taldearekin bi urteko kontratua sinatuta, Espainiako hiriburuan bizi da orain. Aitortu du hara joateak "nahikoa erreparo" ematen ziola, "hizkuntzagatik batez ere", baina beldur guztiak gaindituta, "oso gustura" dabil. Realean egindako urteez, orain bizitzen ari den esperientziaz eta hemendik aurrerako asmoez hitz egin du Maxixatzenekin.

Futbolagatik etxetik kanpo zabiltzan lehen aldia duzu. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Egia esan, etxetik irteetako beldur pixka bat ematen zidan. Hamahiru urtez Realean ibili naiz, eta etxe jiran bizitzera ohituta negoen: goizean entrenatzera joan, arratsaldean lagunekin kafea hartzera irten... Bizitza guztia herrian bertan egiten nuen, eta dena euskaraz. Orain, berriz, telefonoz bakarrik egiten dut euskaraz. Hala ere,

espero nuena baino askoz hobeto egokitu naiz.

Taldean oso jende ona daukagu, aldagela oso jatorra, eta alde horretatik, oso gustura nago; lehenengo egunetik oso ondo hartu naute.

Bakoitza bere etxean bizi gara, baina taldekide bat baino gehiago gaude bakarrik, eta arratsaldeetan eta elkarrekin egiten ditugu planak.

Taldekoekin kuadrilla berria egin duzu, hortaz.

Hala da, bai. Zorionez, oso harreman ona daukagu taldekideon artean, eta horrela, askoz eramangarriagoa da dena. Hasiera-hasieratik oso esperientzia ona izaten ari da; oso eroso sentiarazi naute beti.

Nolakoa da zure ohiko egun bat Madrilan?

Goizez entrenatzen dugu, eta Butarqueko azpiegituretara iritsi eta lehenengo gauza pisatzea izaten da. Horrela fitxatzen dugu, gure pisua tabletean sartuta. Gero, gosaldu egiten dugu, han bertan. Jarraian, bakoitza bere ariketak egiten hasten da, taldeko fisioterapeutarengana joaten da, edo entrenamendu aurretik behar duena egiten du; eta ondoren, entrenamendua egiten dugu. Behin, eguneroko saioa bukatuta, berriz ere bakoitzak dagozkion ariketak egiteko aukera izaten du, edo fisioterapeutarengana joatekoa, edo behar duena. Eta bukatzeko, bazkaldu egiten dugu; hori ere Butarquen bertan. Arratsaldea, berriz, libre izaten dugu.

Egunerokoa asko aldatu al zaizu iaztik hona?



Realean, azken bi urteetan, Zubietan bertan bazkaltzen genuen, baina gosaldutik sekula ez. Aurrez, urte askoan, entrenatzera bakarrik joaten ginen. Entrenamendu aurreko eta ondorengo ariketa horiek egiteko denbora izaten genuen han ere, baina han bazkaltzea azkenengo urteetako kontua izan zen.

Norbaitek agintzen al dizue zer jan behar duzuen?

Nutrizionista bat badaukagu han, eta galdetzen badiogu, berak aholkatzen digu. Hainbat aukera ematen dizkigu, eta gero, norberak ikusten du zer jan. Hala ere, jendeak taldetik kanpo ere badu nutrizionistarengana joateko joera. Azkenean, jaten dugunak eragina du gure errendimenduan, eta etxera joan eta pizza bat jatea baino askoz hobea da han bertan jatea; izan ere, nahi duguna jan dezakegu, aukeratzeko izaten dugu, baina denak aukera osasungarriak izaten dira.

Anaitasunan hasi zenuen futbol ibilbidea 12 urte

zenituenean. Txikitako ametsa al zenuen futbolaria izatea?

Inguruan, anaiak, lehengusuak, denek futbolekin jokatzen zuten, asteburuero joaten nintzen anaia ikustera, eta beti izan dut futbolarekin lotura izan duen ingurua. 12 urterekin Anaitasunan hasi, eta Realarekin txapelketa batzuk jokatzeko aukera izan nuen. Adin horretan Realak ez du talderik

izaten, baina txapelketa jakin batzuk jokatzeko jokalariek hautatzen ditu, eta aukera hori eman zidaten. Hurrengo urtean, infantil txiki mailan, Realak deitu zidan, eta entrenatzen hasteko proposamen egin. Astean hirutan Zubietara entrenatzera joaten hasi nintzen, baina oso gaizki pasatzen nuen, eta utzi eta Anaitasunara bueltatzea erabaki nuen. Hurrengo urtean herrian hasi nintzen, lagunartean, oso gustura, baina Gabonetarako Realak deitu zidan berriz ere, entrenatzen hasteko aukera eman zidan, eta berriz hasi nintzen. 13 urte nituen orduan, eta 25 urtera arte han jardun naiz.

Bigarren aldi horretan hobeto sentitu al zinen?

Bai, askoz hobeto, gustura hasi nintzen, eta, harrezkero, beti ibili izan naiz oso pozik.

Zer dela-eta pasatzen zenuen horren gaizki lehen aldi hartan?

Ez dakit; 12 urte nituen, hara joaten nintzen, askok gaztelaniaz hitz egiten zuten; nik, berriz, Azkoitian, 20 urterekin ere ez nuen inorekin gaztelaniaz hitz egiten. Egunero hara joatea beste mundu batera joatea bezalakoa zen niretzat; gero entrenatzen-eta gustura ibiltzen nintzen, baina gainontzean ez nintzen eroso sentitzen eta uztea erabaki nuen. Gainera, lagunak ikusten nituen



Anaitasunan nola zebiltzan denak batera eta... Egia da urtebetera berriz bueltatu nintzela Realera eta gero egin ditudan hamahiru urteetan oso eroso sentitu naizela, baina ez dakit bada, ez zen nire momentua izango edo...

Zer izan da Realera zuretzat?

Hasi behe-beheko mailatik eta goraino, kategoria guztiak Realean egin ditut, eta asko zor diot Realari. Futbolari bezala ez ezik, pertsona gisa ere han hazi naiz.

Joan den denboraldiaren amaieran jakin zenuen ez zenuela Realean jarraitzerik izango. Kolpea hartu al zenuen?

Urte asko egin ditut Realean, eta denborarekin, futbolarik eta Realak nola funtzionatzaren duten ikusten eta ikasten joan naiz. Ikusten nuen nire etaparen bukaera bazetorrela, denboraldiaren hasieratik nahiko garbi neukan Realean egiten nuen azken urtea izango zela, eta neuk ere baneukan aldatzeko gogoia. Horrenbeste urtean egunero Zubietara joanez, hango fisioterapeutekin-eta sekulako harremanak egiten dira, eta egia da fisioterapeutak esaten zidanean bukaera geraturatzen ari zela, neuk batzuetan erantzuten niola ez nuela horren garbi ikusten, ez nuela horren gertu ikusten bukaera, baina jakin banekien bazetorrela. Alcorconen [Espainia]

jokatu genuen joan den denboraldiko azken partida, eta oraindik ere ondo gogoan ditut partida bukatu osteko uneak, baita aldageletan zer kantatzen jardun ginen ere. Banekien Realean egingo nituen azken minutuak horiek izango zirela eta barru-barruan iltzatuta ditut momentu horiek, une oso berezitzat gordeta. Aurten, Leganesekin, ligako bigarren jardunaldia futbol zelai berean jokatu genuen, irabazi egin genuen, eta oso ederra izan zen, asko gustatu zitzaidan berriz hara itzultzea.

Azken urteak Realaren bigarren taldearekin egin dituzu, baina lehen taldearekin ere jokatuakoa zara.

Vigon [Galizia], Celtaren kontra, ordu erdi batez jokatzeko aukera izan nuen ligan, eta joan den urtean Europan, hiru bat partidatan aritzeko aukera ere izan nuen. Momentuan bertan agian ez zara jabetzen, baina orain, atzera begira jarrita, balio handia ematen diet minutu haiei; Realaren lehen taldearekin jokatzeko umetako ametsa betetzea izan zen, urte askoan egindako lanaren emaitza.

Leganesek deitu zizunean, zalantzarik egin al zenuen?

Realera ibilbidea bukatu arren, garbi neukan futboleko jokatzeko jarraitu nahi nuela, eta Leganesek deitu zidanean, segituen eman nuen baiezkua. Egun batetik bestera Madrilera joan



**"REALAREN LEHEN TALDEAREKIN
JOKATZEA UMETAKO AMETSA
BETETZEA IZAN ZEN"**

**"ORAIN ARTE, DENA EUSKARAZ
EGITEN NUEN; ORAIN, TELEFONAZ
BAKARRIK EGITEN DUT EUSKARAZ"**

**"PSIKOLOGO BATEN LAGUNTZA
DENOI DATORKIGU ONDO,
IZAN KIROLARIA ALA EZ"**

nintzen, sinatu, azterketa medikua egin eta taldearekin hasi nintzen.

Zenbat denboralditarako kontratua daukazu Leganeseekin?

Momentuz, bi urterakoa daukat sinatuta, 2025era arte.

Aurrera begira jarrita, zer? Non ikusten duzu zeure burua hemendik hamar urtera?

Momentuz, ahal dudan bitartean behintzat, futboleko segitzeko asmoa daukat, baina hasita nago gerokearekin ere pentsatzen. Bere garaian, Irakasle ikasketak egiten eta IVEFeko gradua ateratzen hasi nintzen Donostian, bi urte egin nituen, baina goizetan entrenatzen hasi ginenean ezin izan nuen ikasketekin jarraitu, eta orain berriz heldu diet ikasketei; online ari naiz Irakasletza ikasten. Beraz, nire asmoa da, oraingo ibilbidea bukatzen zaidanean, irakasle hasia. Futbol ibilbidea intentsoa baina motza izan ohi da, eta garrantzitsua da beste zerbait izatea.

Futbolak eman dizun momenturik onena aukeratu beharko bazenu?

Bi une ditut gogoan, oso bereziak: bata, Vigon Realaren lehen taldearekin debutatu nuenekoa; eta bestea, Extremaduran, Almendralejon (Espainia), Realaren bigarren taldearekin bigarren mailara igotzea lortu genuenekoa.

Eta ahazteko moduko unerik?

Bigarren mailan aritu ginen urtean pubalgiagatik izorratuta pasatu nuen urte guztia, baina horrelaxe egokitu zen eta kito. Dena dela, ez nuke esango ahazteko moduko urtea izan zenik, horri esker ere asko ikasi bainuen; orain naizena horri esker ere banaiz.

Une zail horietan, eta horren zailak ez direnetan ere, garrantzitsua izango da alde psikologikoa lantzea.

Futboleko zenbateko garrantzia ematen zaio buru osasunari?

Geroz eta handiagoa. Geroz eta jende gehiagok egiten du lan horretan, eta geroz eta kirolari gehiagok dugu geure *coach* edo psikologoa, edo behintzat gertatzen zaigun guztia liseritzen eta gauzak bere tokian jartzen laguntzen digun norbait. Madrilen nagoenetik gutxiago, baina Donostian joaten nintzen *coach* batengana; asko laguntzen zidan eta oso ondo etortzen zitzaidan. Adibidez, umetan izan nuen segurtasun falta hura ulertzeko-eta asko balio izan dit. Poztekoa da gauza horiek geroz eta normalizatuagoak egotea gizartearen ere, nahiz eta oraindik bide luzea dagoen egiteko. Azkenean, norbaiten laguntza denoi datorkigu ondo, izan kirolaria ala ez. ■



JASO ETA EMAN, BORONDATE OSOZ

Horren aztoratuta dabilen mundu honetan, bada bestelako ikuspegi bat duen jendea. Daukatena eta dakitena besteekin musu truk partekatzeko prestutasuna dutenak. Hainbat herritar daude eskualdean modu boluntarioan eskolak eskaintzen edo ikasketetan nahiz euskaraz hitz egiten trebatzeko laguntza ematen. Horietako batzuk dira Mari Jose Iparragirre oriotarra, Imanol Agirre azpeitiarra eta Zarauzko Ikaslagun egitasmoa.

Testua: Aritz Mutiozabal. Argazkiak: Aritz Mutiozabal - Intza Trula





Ikasturte hasierarekin batera, bateko zein besteko ikastaroen zurrunbiloan harrapatuta geratzeko ohitura du gizarteak. Futbol, saskibaloia edo judo eskolak, musika eskoletako klaseak, ingeles akademiak eta euskaltegiak, kiroldegietako edo gimnasioetako saioak, artegintzan trebatzeko aukera ematen dutenak... Eskaintza oparoa bezain ardana dago, baina dena ez da arrosa kolorekoa. Tarifen zenbakiekin malabarrak ere egin behar izaten dira maiz; batik bat, ikastaro batean baino gehiagotan izena ematen badu norbanakoak eta, are gehiago, familia batek. Beste batzuei, haien errealitatea bestelakoa delako, askotan ezinezkoa zaie halako aukerez baliatzea.

Aitzitik, badira inolako irabazi asmorik gabe, borondate hutsez eta boluntariotza lana eginez, behar gehien dutenei klase partikularrak ematen dizkietenak, mintzalagun izateko beraien buruak aurkezten dituztenak, margogintza eta eskulanak haurrei erakusteko pasioa dutenak, gitarra jotzen edo jostintzan trebatzen irakasten dutenak eta abar. Edozein herritan dago ezer eskatu gabe laguntzeko prest dagoen jendea. Beste mundu ikuspegi bat dute, gero eta berekoiagoa eta kontsumistagoa bihurtu den honen ifrentzua dira. Jaso eta eman, eman eta jaso, eta horrela, kateak eten gabe iraun dezan. Boluntarioen jardunari balioa ematen dioten herritarrak dira.

ARTERAKO PASIOA HELARAZTEN

MARI JOSE IPARRAGIRRE



Bokazio handiko artista da Mari Jose Iparragirre (Orio, 1954). Sortzaile geldiezina izateaz gain, borondate itzela du. Margogintzan Iñigo Ormazabal eta Javier Sagarzazurekin trebatu ondoren, bere kabuz ekin zion bideari. Herritar batek komentatu zion Iparragirreri seme-alabak gustura eramango zituzkeela margotzen ikastera, baina Orion marrazketa eskolarik ez zegoela. "Zure aitonak niri fabore bat egin zidan bere garaian, eta oraingoan nik egingo dizut faborea. Horrela ados geratuko gara", erantzun zion.

Hala, Rosa Esnalek eta biek joskintzan aritzen ziren eta arropa konponketak egiten zituzten lokal txikian hasi zen eskolak ematen: aurrena seme-alaba haiei, baina berehala handitu zen taldea, haien lagunak ere interesa erakutsi zutelako. "Nola esango nien ezetz! Nik nire garaian horrela aukerarik izan banu, gustura asko joango nintzatekeen. Beraz, umeei etortzeko esaten diet". Kontua da horrenbeste

lagun animatu zirela, ezen lokaltxo hartan ez zirela denak kabitzen.

Alabak eta suhiak zeukaten lokal handiago batera lekualdatu zen, Salatxo ondora, eta bi ilara mahai jarrita atondu zuen espazioa. "Egunero norbait berria etortzen zitzaidan, eta nik esaten nion: 'Beno, zuretzako ere egingo dugu tokia!'. Dozena bat urte eman zituen bertan "oso gustura", eta, gainera, sortzen zituen eskulanekin erakusleihoan egundoko "muntaiak" egiten zituela dio Iparragirrek: "Askotan tematikoak izaten ziren, eta herritarrak ikustera bertaratzen ziren". Behin etapa hori igarota, klaseak emateari utzi zion, baina berak jardunean jarraitu zuen.

Aldi horretan egindako lanekin erakusketa zabaldu zuen Gure Txoko tabernaren eta litxarrerria denda arteko lokalean. Ikustera joan ziren haurrak ea jada zergatik ez zuen eskolarik ematen galdezka hasi zitzaizkion, baita gertuko bat ere. "Pena eman zidaten, egia esan". Gertuko zuenari larunbat batez lokalera joateko esan zion, eta berriro ere ahoz aho zabaldu zen berria: "Berriz etortzen hasi ziren, eta haiek ikusita, beste batzuk ere animatu egin ziren, lehen ibilitakoak zirela eta jarraitu nahi zu-



tela esanez. Horrela hasi nintzen berriro ere, eta jada bi urte goaz”.

Lokal txikia duen arren, "ezezko" hitza ez da ageri bere hiztegian: "Umeei erakutsi egin behar zaie, jakin-min hori baldin badute". Berehala hunkitzen dela dio, sentsibiltate artistikoa duen seinale, eta haurrak arte mundura zaletzea du helburu; izan ere, "egungo jendea oso lotuta dago *makinitetara* eta mugikorretara, eta hori ez zait batere gustatzen”.

Eskolak ematen ditu, borondatearen truke: "Zenbat den galdetzen didate gurasoek, eta nik lasai ibiltzeko erantzuten diet. Lehen gutxi eskatzen nuen, lokala behean genuenean, gastuak ordaintzeko esaten dena; baina hemen ez dut ezer eskatzen”. Kaxa gorrixka bat du, nahi duenak bere ekarpen ekonomikoa egin dezan. "Iruditzen baldin bazaie dirua jasotzea merezi dudala, kaxan bertan sartu eta kito. Ni ez naiz jabetzen zenbat ematen didaten. Are gehiago, ez diet ezer aurpegiratzen”.

Arraroa da gisa horretara funtzionatzea, eta lparragirre bera ere kontziente da. "Ikastaro guztietarako ordaindu egiten da gaur egun, baina nik neure buruari esan nion: ordubetez aritzeko hiru hurrekin, zertan hasiko naiz tarifa bat jartzen. Beharrik ez dudanez, diferentea da”. Oraindik hasiera-hasierako lehen ikasle haiek topatzen ditu kaletik, eta "agur Mari Jose!" agurtzen dute. Batzuen izenak berehala gogoratzen ditu, eta besteenak, berriz, gerora etortzen zaizkio akordura. "Kasu egiten didaten guztietan sekulako poza ematen didate. Horrek esan nahi du gustura ibili zirela nirekin. Asko balio du niretzat”.

"Egunero norbait berria etortzen zitzaidan, eta nik esaten nion: 'Zuretzako ere egingo dugu tokia!'"

"Ordubetez aritzeko hiru hurrekin, zertan hasiko naiz tarifa bat jartzen. Beharrik ez dut eta diferentea da"

IKASKETETAN AURRERA EGITEKO IKASLAGUN



2016an jarri zuten Ikaslagun egitasmoa martxan Zarautzen, aurretik Donostian ekin zioten eredu kontuan hartuta. Gizartea aldatzen ari zen eta arazo edo egoera berriak sortzen ari ziren: familia migratzaileak, desegituratuak, pobretuak... Ondorioz, hezkuntza aldetik haurrak atzean geratzen ari ziren, etxeko giroa haiei laguntzeko moduan ez zegoelako. Orduan erabaki zuten eskola partikularrak ematea dohainik, ikasketetarako laguntza behar zutenei eta aparteko laguntzarik ordaindu ezin zutenei. "Ildo beretik, guk erabaki genuen gauza bera egitea Zarautzen", kontatu du hastapenetatik dabilen Marije Zumeta (Zarautz, 1953) irakasle jubilatua.

Kide batzuk elkartu ziren hasiera hartan, eta orain, urtero-urtero elkartzen dira ikasturte hasieran dena programatzeko. "Boluntarioak gara denak, batzuk irakasle ibilitakoak, eta

beste batzuk, berriz, ez". Astean hiru egunetan klaseak ematen hasi ziren, eta gaur egun ia egunero ematen dituzte, astelehenetik ostegunera. "Boluntarioak nahi dutenean etortzen dira, eta horren arabera, haurrak mailaz maila banatzen ditugu. Ordubetez aritzen gara haiekin etortzen diren aldiro", zehaztu du.

Zumetaren esanetan, "haur bati eskolan etxeko lanak jartzen baldin badizkiote eta etxean egiteko aukerarik ez badu, eskolara jada kezkatuta joaten da. Eginda eramatea sekulako lasaitasuna da berarentzat, eta gure laguntzaz egin ditzake. Era berean, euskarari dagokionean batik bat, etorri berria delako, laguntza ematea, berekin hitz egitea eta pixkanaka aurrera nola egiten duen konturatzeko da helburua".

Ikasturte hasieran ikastetxe guztietara joaten dira. "Jada ezagutzen gaituzte, baina hemen gaudela gogorazten diegu. Hortik aurrera,



irakasle bakoitzak bere gelan zerrenda bat egiten du gugana etortzeko beharra luketene-kin, eta zehazten du zertan lagun diezaiokegun. Ondoren, gurasoek hartzen dute gugana ekar-
tzeko ardura. Ikastetxeak erabakitzen du zein haur datorren Ikaslagunera; gu horretan ez gara sartzen".

Edonor boluntario

Irakasle ohiek ekin zioten Zarauzko Ikaslagun egitasmoari, baina badira irakasle izan ez diren jubilatuak ere, eta baita irakasle ez direnak eta ikasi nahi dutenak, eta ezagutzen ari direnak. "Boluntarioak eskatzen ditugu, gogoa dutenak, eta benetan esan dezaket, esperientzia polita dela. Hasieran egokiena iruditu zitzaigun jubila-
tuak etortzea laguntzera, baina gaur egun, hori ez da beharrezkoa: magisteritzako ikasleak, jubilatu gabeak... edonor etor daiteke".

Boluntariotzaren itsasoan murgiltzeko gogoz batu zen Itxaso Azkue (Zarautz, 2006) duela urtebete, Ikaslaguneko kideen artean gazteena. "Boluntario izan nahi nuen, eta Internet bi-
dez bila aritu nintzen zer auke-
rak zeuden herrian. Niri haurrak asko gustatzen zaizkit, eta Ikaslagun egitas-
moaren berria irakurri nuen Hitzako albiste batean. Egitasmoa arduradunekin harremanetan jartzeko posta elektronikoa ageri zen han; bertara idatzi nuen galdezka, eta horrela hasi nintzen guztia". Batxilergoko bigarren mailan dabil oraindik Azkue, baina argi dauka magisteritza ikasi nahi duela.

laz ekin zion ikaslagun izateri, eta ziur da bi-
zitzen ari den esperientzia baliagarria izango zaiola. "Ume bati laguntzen egon nintzaion euskararekin, eta oso-oso gustura aritu nintzen". Lan taldean oso giro ona topatu duela nabar-
mendu du: "Denak laguntzeko prest daude, eta edozer gauza komentatu dezakezu. Esate-
rako, Marijek kontatu dit Orokietan matemati-
ka beste modu batera ematen hasi direla, eta horrela, gauza berriak ikasten ditut".

Boluntario bakoitzak erabakitzen du zer egu-
netan joango den laguntzera, eta zer maileta-

ko ikasleak hartuko dituen. "Hala, bi lagun
arte hartzten ditugu lauzpabost ikasle, edo
batek hartzen ditu bizpahiru. Ikaslagunen bes-
te helburua da ahalik eta haur gutxien edukitzea
bakoitzak, lan pertsonalizatua egiteko haiekin.
Batzuk etxeko lanekin etorriko dira, eta beste
batzuk beste behar batzuekin, baina, azken
finean, denei modu zuzenen lagundu nahi
diegu", azpimarratu du Zumetak.

"Pila bat jaso"

Izandako ikasleak bide onetik jarraitzen dutela ikusteak "asko asebetetzen" ditu Ikaslaguneko kideak. "Izugarria da kaletik zoazela haurrek eta gurasoek nola agurtzen zaituzten ikustea. Sekulakoa da, esaterako, LH5en izan zenuen norbait DBH4n ongi dabilela jakitea. Horrek zirrara berezia sortzen dizu. Zerbait emango dugu, baina pila bat jasotzen dugu trukean. Hori oso garbi dugu boluntario jendeak", dio, hunkituta, Zumetak. Ikasketetan atzean gera ez daitezen, aurre-
ra egiteko tresnak ematen diz-
kie Ikaslagunek bertaraten diren haurrei. Hori da, azken finean, egitasmoaren xede na-
gusia: "Ez dakit beti lortu izan

dugun, baina ematen beti ahalegindu gara. Ez daitezela geratu beraien eskolako martxa ja-
rraitu ezinik, horrek asko markatzen baitu ge-
rora".

Une honetan, dozena bat lagun dabilta bo-
luntario Ikaslagunen, eta beste bi ere espero dituzte epe laburrean. Edonola ere, gogoratu dute hemezortzi zirela egitasmoarekin hasi zi-
renean, eta kopurua murriztu egin dela. Hori horrela, jendea beraiegana batzeko deia egin dute: "Gutxienez, bertaratu, ikusi zer egiten dugun, probatu arratsalde batez, eta animatzen badira, ongietorriak izango dira". Haien esa-
netan, gero eta beharrezkoagoa da: "Pozik etortzen gara eta pozik joaten gara, eta astean ordubete ez da horrenbeste. Azken finean, bakoitzak eman dezakeena da gakoa". Zarauz-
ko Ikaslagun egitasmoarekin harremanetan jarri nahi duenak marijEZumeta@gmail.com posta elektronikora mezua bidal dezake.

Ikasleek bide onetik jarraitzen dutela ikusteak "asko asebetetzen" ditu Ikaslaguneko kideak

BOLUNTARIOTZA AISIALDIA BAILITZAN

IMANOL AGIRRE



Boluntariotza zainetan darama Imanol Agirrek (Azpeitia, 1952). Beretzat ez da behar bat, plazera baizik, nahiz eta askorentzat zaila den konzeptua ulertzea. Filosofia horrekin ekin zion mintzalagun izateari. Duela zortzi urte bilkura zabala deitu zuten Sanjuandegi auzoan, eta Jon Maia ekarri zuten espresuki hitzaldia eskaintzera. "Batzar hartara erdaldun jendea gonbidatu genuen, eta gure helburua izan zen hortik talde batzuk sortzea, lehendik euskara pixka bat menderatzen zuen jendearekin", kontatu du. Egitasmo hark "arrakasta polita" izan zuen, eta "nahiko hunkigarria" izan zela du gogoan. "Hortik sortu zen mintzapraktika taldea".

Bereziki, aspalditik herrira etorritako erdaldunak eta euskaraz zerbait ikasi zutenak animatu ziren: eroso sentituko ziren giroan ikasi nahi zuten euskaraz, gramatikarik gabe eta euskaltegira joan

gabe, hizketaldien bidez. Horiez gain, titulua atera nahi dutenak ere gehitu zaizkie gerora. Hala, maila ezberdinetako bost bat talde elkartzen dira egun, euskaldun berriak euskaldun zahar edo bidelagunekin, tabernaren, kafetegiren edo lokal batean, elkarrekin euskaraz aritzeko.

"Gehienak dira etxean eta inguruan euskara praktikatzeko arazoak dituztenak, baina nahiko maila ona daukatenak. Maila antzekoa dutenak elkarrekin jartzen ditugunez, nahiko erraz egiten dute, eta euskaldun zaharraren papera izaten da katigatzen diren momentuetan laguntzea, giro on bat sortzea eta asteburuan egin dutenaren inguruan solasaldi bat dinamizatzea"; horrela eman du beraien jardunaren berri Agirrek

Azpeitiarra koordinatzaile lanetan aritzen da, eta bere ardura da taldeak osatzea eta jendea animatzea. "Nik neuk ere taldetxo bat eramaten dut, eta iruditzen zait oso ekimen ederra dela. Gustuz egiten dut, eta aisialdi moduan kontsideratzen dut. Ez da zama bat, inolaz ere. Oporretara edo norabait joan behar dugunean, beste norbaiten esku uzten dugu taldea, eta ez da arazorik izaten".

Aisialdia bai, baina "besteei euskara irakaste hutsa eragingarri da guretzat". Azpimarra berezia egin du horretan, gainera: "Guretzat pozgarria da jende horrekin solasaldiak egitea euskaraz. Azken finean, gauza polita egiten dugu. Ez da lan bat guretzat, aisialdiko ekintza bat bezala baita, eta gainontzeko ekintza bo-



luntario guztiak ere horrela ulertzen ditut. Ez da derrigorrez egiten duguna, gustu handiz baizik".

Bere iritziz, lan boluntarioak horrela izan beharko luke: "Bakoi-tzak bere militantziarekin edo eman dezakeena emanda, baina gehiago eskatu gabe, eta geure artean harreman ona izanda. Azken finean, ondo pasatzera joaten gara mintzapraktiketako saioetara". Euskaldun berriek ere asko estimatzen dutela nabar-mendu du, elkarrekin denbora tarte eraginkorra partekatzen dutelako. "Horregatik jarraitzen du egitasmoak".

Elkarrekin, batera

Agirreren boluntariotza grina ez da horretara mugatzen, Elkar-ekin taldean ere buru-belarri baitabil. Duela hamar bat urte sortu zuten elkarteak, zegoen "egoera prekario eta kritikoaren ondorioz, beharrik gehien zutenei erantzun bat emateko asmoz". "Hasi ginen arropa banatzen, gauzak banatzen, eta, pixkanaka-pixka-naka, bigarren eskuko denda bat bihurtu da. Izatez, bi denda dira: bata arropena, eta bigarrena, materialena", aditzera eman du.

Denda bakoitzean langile bana duten arren, boluntario talde finko bat dute asteroko martxa eramateko, eta gero, 70 lagune-ko talde zabal bat dute, bi hilabetetik behin parte hartzen dute-nak. "Horrela, sei hilabeterako pertsonala bermatuta izaten dugu denda zabalik edukitzeko". Ateratzen duten diruarekin hainbat eratako ekintzak antolatzen dituzte: herriko prekarietateari eta migratzaileen egoerari buruz gizartea kontzientziatzeko, migra-tzaileak euskalduntzeko eta abar.

"Horrez gain, udalak behar gehien duten familien zerrenda pasatzen digu, eta 80 bat familiari arropa ematen diegun doan, udazkenean zein udaberrian. Gainerakoan, gure dendetan euro batera edo bira, edo behintzat oso merke, jartzen ditugu gauzak salgai, eta hortik lortzen duguna gure ekintzak antolatzeko era-biltzen dugu. Konfiantza daukagun elkartasun proiektuetara ere bideratu izan dugu dirua". Oren gainetik, dende ongi funtzio-natzearen gakoa "boluntariotza lan handiari" dela azpimarratu du. ■

"Ez da lan bat, aisialdiko ekintza baizik; beste ekintza boluntarioak ere hala ulertzen ditugu"

"Hasi ginen arropa eta gauzak banatzen, eta, pixkanaka, bigarren eskuko bi denda eraiki ditugu"

Gerra algoritmikoaren amarauna



LANDER ALBIZURI

Duela hamarkada bat pasatxo, sare sozialak gardentasunerako tresna gisa hartu ziren, *Arabiar Udaberria* izenarekin ezagutu ziren altxamenduetan informazio zuzena partekatzeke ahalmena emanez bertako lekukoari. Orain, badirudi plataforma berberei esker gatazken inguruan desinformazio gehiago dagoela argitasuna baino. Hamasen erasoen ondorengo egunetan, berriro ikusi ditugu albisteak eguneratzeko iturri horien mende egoteak dakartzan arriskuak.

Iazko otsailean hasi zen sare sozialak informazio gerra moduan erabiltzearen fenomeno, Errusia Ukrainara sartu zenean. TikToken sortutako bideoak izan ziren gudako lekukoek lehen pertsonan zuzeneko gertakariak partekatzeke bide orokorrena: frontean zeuden soldadu ukrainarrek eta haien herrien mugetan ezarritako tankeak, bonbardatutako departamentu-blokeak eta tropei emandako errazio-paketeak...

Ildo beretik, sareen nazioarteko iritzi publikoan eragiteko potentziala bistan izanik, hainbat izan ziren horien kontrola eskuratzearren itzalean mugitu ziren hariak.

X, lehen Twitter gisa ezaguna zenak, edukia moderatzeko langile sailak desegin zituen, albiste tradizionalen irismena mugatu zuen eta edozein erabiltzaileri egiaztapen urdina erostea ahalbidetu zion. Facebookek, bestalde, *News Feed* izeneko atalean albiste tradizionalak ezarri ohi zituen, baina 2016ko hauteskundeetan Trumpen aldeko gezurrak zabaldu ostetik enpresak erabateko bira eman du, albiste-artikuluaren kopurua guztiz minimizatu.

TikToket Israel eta Hamas artean eduki faltsuari aurre egiteko prozedurak abiarazi ditu. Hala ere, New Media & Society aldizkariak duela gutxi argitaratutako azterlan batek ondorioztatu zuen plataformak beste eduki mota batzuek baino sustapen algoritmiko txikiagoa eskaintzen diela albisteekin lotutako argitalpenei, iritzi publiko negatiboa saihesteko edo aplikazioa arautzearen mehatxuengatik.

Europar Batasuneko Zerbitzu Digitalen Legearen arabera, sare sozialek diru sarrera globalen ehuneko seirainoko isunak izango ditzakete edukia ez moderatzeagatik. Lege hauen eraginkortasuna zalantzan jartzen da, ordea, edozeinek desinformazioa igo dezakeen plataforma batean ezinezkoa delako egiaztatutako informazioa soilik hedatzea, horrela, enpresa gaiarekin lotutako edozein informazio ezabatzeraz bultzatuz.

Era horretara, sare sozialek gardentasun sententzia sortzen jarraitzen dute, gure pantailen atzeko amaraun algoritmikoan gerra egunero garatzen den bitartean, informazioaren bozgorailua eskuratzeko. ■■■

**TIKTOKEK ISRAEL ETA
HAMAS ARTEAN EDUKI
FALTSUARI AURRE
EGITEKO PROZEDURAK
ABIARAZI DITU**

NON DAGO ZAKELMARI?



Urriko Maxixatzen aldzkarian **Zakelmari** non ezkatuta zegoen asmatu behar zen: 36. orrialdean zegoen ezkatuta.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Begoña Izagirre** bazkideari egokitu zaio, eta haren senide batek jasu du Ogi Berri okindegiaren **zortzi lagunentzako tarta**.

Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekea zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna azaroaren 16a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo azkoitia@ukt.eus helbide elektronikora.

ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.

ESKAINTZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO



"Aurten, azkeneko aldiz parte hartuko dut danborradan"

XANTI ARTETXE 'ETXEZA' HELDUEN DANBORRADAKO ZUZENDARIA

Xanti Artetxe helduen danborradako Ixkitturri taldeko zuzendaria da. Umetan izan zuen lehen hartu-emana danborradarekin, sukaldari eta danbor jotzaile gisa. Helduen danborradan, zuzendari modura parte hartu izan du betidanik. Andremarietan txupinazoa bota zuen Justino Sasietarekin eta Ana Etxanizekin batera.

Testua: **Naia Arrizabalaga**. Argazkiak: **Maxixatzen**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Xanti Artetxe *Etxeza* (Azkoitia, 1961) haurra zela hasi zen danborradan parte hartzen, sukaldari moduan, eta gero, danbor jotzaile eta barrika jotzaile aritu zen. 1978an, helduen danborradan parte hartu behar zuenean, Ixkitturri elkarteko zuzendari izateko aukera eman zioten lehen aldiz, eta ordutik, horretan aritu da: "Aurretik ez nintzen inoiz zuzendari gisa aritu, baina aukera eman zidaten, eta horretan nabil geroztik". Garai haietako "oroitzapen onak" ditu azkoitiarrak. Zuzendari izanda, danborra jotzeak inbidiarik ez diola ematen dio Artetxek: "Inbidiarik ez dit ematen, baina azkeneko urtean danborra jotzen aterako nintzela esan izan dut askotan; hala ere, ez dut horrelakorik egingo".

Zuzendari on batek "entzumen ona" zein musikari jarraitzeko gaitasuna izan behar dituela azpimarratu du Artetxek, baina horiek "urteen poderioz" lortzen direla argi dauka. Danborra jotzeko, aldiz, zuzendariari jarraitzea premiazkoa da, bere hitzetan: "Danbor joleak zuzendariari jarraitu behar dio, baina zuzendaria nahasten bada, denak nahastuko dira".


Danborrada jotzen, zuzendari izaten zein antolatzen laguntzen aritu izan da azkoitiarra: "Lehen, askotan esaten nuen danborradan karrozan ateratzea soilik falta zitzaidala". Hala ere, antolakuntzaren parte izateari utzi egin zion, eta orain, zuzendari modura aritzen da soilik, entseguetan zein danborrada egunean.

Zuzendariak danborradari asko eman badio ere, oroitzapen onak eta lagun asko eman dizkio danborradak berari: "Jende asko ezagutu dut urte hauetan, eta taldekideok gure artean giro oso ona izan dugu beti, bai danborradan, aurretik zein ondoren ere".

Artetxek ibilbide oparoa egin du danborradan, baina urte askoren ondoren, aurten amaiera emango dio bideari: "Lana utzitakoan danborradari ere utziko niola esan nuen, eta hala egingo dut; ez dago atzera bueltarik". Artetxek hil honetan danborrada agurtuko badu ere, familian jarraipena emango diote ohiturari, haren alaba Iratik jarraituko baitu danborradan parte hartzen.

Zailtasunak zailtasun, aurrera

Artetxeren arabera, 1990. urtetik 2000. urtera arte garairik gogorrenetakoak pasa zituen danborradak, "desagertzeko zorian" egon





Artetxe, joan den andremarietan, txupinazoa botatzen, Ana Etxanizekin batera.

baitzen. Garai hartan, andremarietan egiten zen danborrada, eta orduko zailtasunak gogoan ditu azkoitiarrak: "Jende asko kanpora joaten zen garai horretan, eta danborradan parte har lezakeen jendearen bila ibiltzen ginen herrian". Ondo gogoan ditu garai horiek: "Udalekoek jendea bilatzeko esaten zidaten, eta nik barregarri geratuko ginela erantzuten nien; parte hartzaile gutxi izanagatik, ordea, danborrada egiten genuen".

2001. urtean, sanandresetara pasatu zuten danborrada: "Erantzun ona izan zuen aldaketak, elkarteek zein eskolek parte hartu zuten lehen aldiz". Hori dela eta, taldeen zein jendearen kopurua gora egiten hasi zen, eta geroztik data hori mantendu dute. Aldaketa horrek, ordea, alde txar bat du Artetxerentzat: "Beti eguraldiari begira egon behar izaten dugu. Hotzak ez dit axola izaten, baina euriak danborrada zatartzen du, jantziak ez baitira ikusi ere egiten". Euria egiten duenetan, danborradan ez ateratzekoaren alde egiten badu ere, beti parte hartzen bukatzen dutela aitortu du hark.

Abestien inguruan ere mintzo da zuzendaria: "Errepertoriora sartu ziren azkenen abestiak Azkoitiko ereserkia zein *Xoxote martxa* dira, eta urte batzuk daramatzagu horiek jotzen. Azken urteetan ez da abesti berririk txertatu". Ildo horretan, abesti berriak jotzen hasteak "lan asko" dakarrela azpimarratu du, jende askok parte hartu behar izaten baitu.

Azken urteetan, danborradak indar handia hartu duela argi dauka azkoitiarrak: "Sekulako festa giroa egoten da, bai plazan, baita egunean zehar ere, eta hori danborradak indarra hartu duenaren adierazle da". Horrez gain, egun danborradak itxura ederragoa duela iruditzen zaio: "Lehen, askoz sinpleagoa zen dena, eta oraingoa, berriz, indartsuagoa eta ederragoa da".

Azken urteetan, parte hartzaileen kopuruak nabarmen egin du gora: "Gaur egun, 500 lagun

inguru irteten dira danborra jotzen, eta lehen, 100 ere ez ginen". Taldeen kopurua ere asko igo da: zortzi talde inguru izatetik, hamabi talde izatera pasatu dira, eta aurten ere talde berriren bat sortuko da.

Hori hala izanik, Azkoitian danborradak aurrera jarraituko duela uste du zuzendariak: "Aurten ere beste talderen bat sortuko da ziurrenik, eta danborradak etorkizuna baduela erakusten du horrek, gazteak gogotsu baitaude".

Azpeitian zein Donostian egiten diren danborradek herrikoaren aldean indar handia badute ere, haien inbidiarik ez duela sentitzen esan du Artetxek: "Askok pentsatuko dute

Xanti Artetxe

- **Adina:** 62 urte.
- **Ikasketak:** Batxilergoko ikasketak.
- **Lanbidea:** Operarioa
- **Zuzendaria izango ez banintz...** Barrikak jotzen irtengo nintzateke.
- **Danborrada amaitutakoan gogoko dut...** Eguraldiaren arabera, kalean taldekoekin buelta bat ematea gustatzen zait.



Artetxe, danborradan lxxkitturri taldea zuzentzen.

gezurra dela hori, baina nik nahiago dut gure danborrada; ez nioke ezer aldatuko".

Egindako lanagatik aitortza

Danborradaren 75. urteurrenaren harira, joan den andremarietan txupinazoa bota zuen Artetxek, Justino Sasieta lehen danborradako parte hartzailearekin eta Ana Etxaniz zuzendariarekin batera. Suziria botatzeko aukera ematea "aitortza" izan zela adierazi du zuzendariak: "Ez nuen inondik inora espero txupinazoa botatzeko aukera

izatea, eta sekulako ilusioa egin zidan udalaren deia jasotzeak, suziria ez baitu edozeinek botatzen".

Danborradan izan duen presentzia kontuan harturik, Artetxek "herriaren alde" zerbait egin egin duela sentitzen du, eta hori aitortzea "ohorea" izan da berarentzat. Txupinazoa bota zuten unea ondo gogoan du hark: "Abuztuaren 14an udaletxeko balkoira irten genuenean, plaza horren beteta ikusteak zirrara eragin zidan. Asko harritu ninduen, momentu ederra izan zen". ■■■

GARAJE

AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com

AZAROA

Margotu

Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kiuen eta ondoren garaia. Goian idatzita dago, baina kolore apur bat menez du, ezta? Bada, eman iezaiozula



ALdea dago

Aurki itzazu bi irudien arteko hamar aldeak.



Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esatera zahar bat agertuko zaizu. Erabili albako hizki-marrazki alfabetoa.



Handienetik txikienera



Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.

Gauza bera da...

Zer diote gure lagunek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki, hizkiak batuz, geziek agintzen dizuten moduan. Bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu abiapuntua. Jakin ezazu azaroari deitzeko moduz ari direla biak.

AIZU, BA
NIRETZAT AZAROA

Z

DA



Z	I	A	F	O	R
O	E	M	E	K	U
R	O	S	E	N	I
I	P	U	R	U	D
O	R	E	O	I	K
N	O	A	U	H	A

GURE HITZA
MOTZAGOA DA,
SEI HIZKI DITU:

H

DA



H	U	N	Z	I
I	A	G	E	T
T	Z	I	Z	U
Z	P	I	K	A
A	N	T	L	A

Itzala

Lotu hosta bakoitzari
bere itzala



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



Erlojuaren zaindari

Aski ezaguna da San Martingo muinoan dagoen ermitako erlojua, baina inor gutxik ezagutzen du herriaren ikurretako bat den ondarearen orratzak eta kanpaia mugiarazten duten erlojua. Duela urtebete baino gehiagotik, haren ardura du Miguel Larrañagak; mimoz zaintzen du ia 300 urteko tramankulua. Argazkiak eta testuak: **Ane Olaizola.**

Lanbide berezia

Miguel Larrañagak urtebete baino gehiago darama San Martingo ermitaren erlojuaren arduradun. Jaiotzez auzokoa da Larrañaga, eta "oso pozik" dago daukan zereginarekin: "San Martingo erlojua hain gurea denez, ilusio handia egin zidan lan honetan hasteak". Izatez ez da erlojugilea, baina betidanik gustatu izan zaio saltsa horretan ibiltzea, eta zaletasunari eutsiz, erloju ugariri atera izan dizkio barrenak.



Zugasti aita-semeena

Ermitaren azken solairua hartzen du erlojuak, eta makinaren erdialdean dagoen beste erloju formako pieza batean ikus daiteke haren zigilua: "Por Zugasti e hijo. Bilbao". Egun, San Martingo erlojuaren orratzak mugitzen dituen erlojua 1859. urtekoa da, Jose Manuel eta Faustino Zugasti aita-semeek sortutako erloju fabrikaren egindakoa. Erlojugile horien beste hainbat erloju dira, esaterako, Arroakoa, Zumaiaiko San Pedro elizakoa, Loiolako basilikakoa, Azpeitiko San Martin egoitzan dagoena...



Tik-tak

Erlojuaren ondoan entzun daiteke penduluaren hots erregularra, eta azpiko solairutik ikus daiteke hura (irudian), zintzilik dauden bi kontrapisuen parean. Erlojuaren aingurari esker, pendulua mugitzen ari da une oro, eta makinaren zehaztasuna jakiteko sentsoreak ditu jarrita Larrañagak. Horrela jakiten du hark erlojua aurreratu edo atzeratu egin behar duen. "Segundoen aldea egon ohi da. Oso zaila da kanpaiak erabat puntuan jotzea". Kamera txiki bat ere badu jarrita, erlojua geratzen bada, jakiteko zer gertatu den".



Mantenua, ezinbestekoa

Hiruzpalau egunetik behin joaten da Larrañaga erlojura, haren mantenua ezinbestekoa baita gailuak behar bezala funtziona dezan. "Garrantzitsua" da erlojuaren piezak eta engranajea ondo koipetzea, eta horregatik, aldiro olio botatzen die ardatz guztiei, kanpotik zein barrutik, beti ere makina geratu gabe. Xiringa batekin, tantaka eta kontuz olioztatzen ditu piezak, eta kanpoko giroaren arabera, olio lodia edo mehea erabiltzen du. Aingura, esaterako, mugitzen ari da une oro, eta hura da pieza nagusia erlojuak martxan jarrai dezan. Pieza beraren bi aldeek egiten dute lan: batak mekanismoa gelditzen du, eta besteak piezari bultza egiten dio. Higadura handiena jasaten duen piezetako bat da. Tentuz botatzen dizkio tantak (irudian).



Kordea eman

Erlojuari kordea ere eman behar izaten dio Larrañagak; hau da, makinaren azpian zintzilik dauden harrizko bi kontrapisuak igo behar izaten ditu, beheraino iritsi baino lehen. Bata, orduari dagokion kontrapisua da, 120 kilokoa; bestea, kanpaiari dagokiona, are astunagoa da: 300 kilo pisatzen ditu. Barra baten laguntzarekin, erlojuari dagoen kontrapisuaren dagokion piezari birak emanda igotzen ditu harriak. "Kanpaiaren kontrapisuari, esaterako, 55 bat bira ematen dizkiot aldiro, eta pisutsua denez, indarra behar da".



Ikuspegi aparta

Erlojuaren beste pieza bat da palanka, kanpaira lotuta dagoena. Hamabi hortz ditu, eta gainean duen pieza hortzetako batean katigatzen bada, kanpaiak jotzen du. Kanpaiak dagokion erritmoa manten dezan, gainera, palankaren ondoan haizearentzat balazta dago. Izan ere, kanpaiak jotzen duenean biraka hasten da makinaren beste zati bat. Kanpotik, kanpaia besterik ez da ikusten, erlojua lau hormez babestuta dagoelako. Haren goian dago kanpai ezaguna. Hain zuzen, sabaira eramaten duen atea ireki, eta burnizko barra batzuk igo behar dira hara iristeko. Kanpaia parez pare izateaz gain, ikuspegi apartaz gozatuko du hara igotzera ausartzen denak, 360 gradutan ikus baitaiteke herria, baita inguruko mendiak ere.



Kanpai festa, etxekalte

Azaroaren 11rekin batera iristen dira jaiak San Martinera, eta auzotarrak ez ezik, kanpaia bera ere aztertatu egin ohi du egun horretako kanpai festak. Erlojuaren egungo orratzak 2005ekoak dira, urte hartako San Martin egunean kanpaiaren soka orratzetako batean katigatu eta puskatu egin baitzen: "Orratzek eta kontrapisuek orekatuta egon behar dute, eta orduko hartan orratza hondatu zenean, makinaria guztia geratu zen". Horrez gain, Larrañagak dio San Martin eguneko kanpai festaren ondorioz, erlojua "mareatuta" egoten dela pare bat astez. "Ordua gaizki ematen du, baina ez dugu antzematen zergatik gertatzen den". ■■■

'Rara avis'



MAITE LOPEZ

Zeinen zaila behar duen izan *rara avis* bat izatea, bitxia alegia, diferentea. Zeinen nekeza behar duen izan aldiro azalpen lehorrak ematen aritzea, pitorik axola ez zaizun jendeari batez ere, edo, bestela esanda, bost axola diozun jendeari.

Demagun, orduak dirutan neurtzen ditugun gizarte honetan, gazte batek hildako hizkuntzak ikasi nahi dituela erabakitzen duela, edo adimena artifizialtzen ari zaigun sasoi honetan, filosofia; *zertarako* eta *alferrikako* hitz gakoak eta erantzunik unibertsalenak bihurtu diren aro honetan. Jartzen al da inor gaztearen larruan joeraren kontrako bere erabakia adierazi behar duen unean? Arrastorik ez, baina zaila izan behar du gero, batik bat jende normalaren erantzunak aldeztu aurretik gutxienez susmatu eta seguruenik jakin badakizkien izaera bereziko pertsonarentzat.

Zeinen latza behar zuen izan duela bi mila eta zazpiehun urte, poeta hitza bera maskulinoa zen hizkuntzan eta garaian, poeta guztiak gizonezkoak zirenean eta poesia epikan ardazten zenean, emakumea eta poeta izatea eta desirak gudu-zelaia ordezkatzeko. Amodioari buruz abestea ez baita inoiz

hutsalkeria izan, ez lehen ez orain. Zeinen zaila behar duen izan, kasurako, mutila izan eta futbola atsegin ez zaizula esatea; areago, nerabezaro betean artea edo dantza klasikoa gustatzen zaizkizula jendaurrean ahoskatzea.

Hortaz, orain, dagoeneko hitz egiten ez den hizkuntza batetik bertso-lerro batzuk euskaratzen ari naizen une honetan, neure buruari galdegiten diot *zertarako* balio duen gure denbora diruagatik saltzeak benetan egin nahi duguna egiteko denbora kentzen badigu. *Zertarako* asmatu tramankulu sofistikuak ongia egiteko erabiltzen ez badira. Ez al den *alferrikakoa* zorraz kitatzeko baino balio ez duen zenbaki birtuala, hilean aurrera gorritzen dena.

Eta, bestalde, zer pentsatuko ote du *rara avis* batek bere burua normaltzat duen jendeaz? Ba ote bitxirik bitxiarentzat?

Zer sentituko genuke, esaterako, gau batean gizaki oheratu eta intsektu esnatuko

ZER PENTSATUKO OTE DU *RARA AVIS* BATEK BERE BURUA NORMALTZAT DUEN JENDEAZ?

bagina? Ez da ederra izango Kafkaren *Metamorfosia* liburuko protagonistaren itxuraldaketa bizitzea, batez ere bere senideek arbuiztzen dutenean, desberdintasuna ulertzeko ezintasunagatik, itxuraldaketa onartzeko ezgaitasunagatik. Nortasuna zertasun bihurtzen dugu sarri, nor garen azaldu beharrean, zer egiten dugun adierazterakoan adibidez. Eta zer hori askotan zenbat gisa itzultzen eta ulertzen dugu.

Bitxia izatea, ordea, munduko gauzarik normalena da, bitxientzat batez ere. Asma dezakegu akaso goserik, beharrik eta zoritxarrik gabeko mundu perfektu bat, non denok pozik bizi garen eta bakoitzak bere lekua topatzen duen. Asma dezakegu gizarte perfektu bat, Aldous Huxleyk *Bai mundu berria* eleberrian egin zuen gisara (Txalapartak argitaratua eta Xabier Amurizak euskaratua), baina behartzeak zoriontasuna kamusten du maiz. Derrigorrez pozik bizi behar izateak alegia, emoziorik gabeko bizitza bakun baterantz zuzenduko gintuzke, eta ez dut uste halakorik jasateko prest daudenik *rarae aves* edo hegazti arraro horiek, aukerak ebastea txoriari hegoak ebakitzearen pareko baita, eta nik txoria dut maite. ■

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukf.eus o 943-81 38 41

Bizi beharrean, beharrean bizi



AITOR ARRUTI

Mundua esplikatzeke hitzak ematea, horixe eskatzen diogu hizkuntzari. Bizi duguna ulertzeke, bizi gaituzten emozioak adierazteke, ondokoaren nahiak aditzeko, inguruan gertatzen dena azaltzeko, iraganaz ez ahazteko, etorkizuna irudikatzeke, bizimodua edertzeke eta askoz gehiagotarako balioko digun mintzaira behar dugu hiztunok. Beste hainbeste eskatu izan diogu euskaldunok egunez egun euskarari, baldinbaitere, Lizardi poetak ez ezik gainerako guztiok.

Halako kontuak ibili nituen gogoan Xabier Mendiguren Bereziartu hil berritan. Gogoratu nintzen ume-umetatik hizkuntza bati estu lotutako jendea izan dudala inguruan, etxeoak, bateko eta besteko senitartekoak, gurasoen adiskideak, andereño Karmele Urrestillako ikastolan Haur Hezkuntzako lehenengo pausoetan, ezin konta ahala irakasle eta ikaskide Loiolako ikastolan gero. Arrisku gordinei aurre eginez bide hura urratu zuten gurasoak ezagutu nituen, seme-alabak han sartuta nora iritsiko ziren jakin ezin zutenak. Euskara mahai bat baldin balitz, tente irauteko ikastolaren hanka nahikoa izango zuela sinesten zuten guraso haietako gehienek, hezkuntza izango zela herriaren geroa euskaraz taxutzeke zutabe behinena.

Xabier Mendigurenek, Joserra Etxebarriak eta bestek idatzitako

Saioka ikasliburuak erabili genituen ikastolan, gizon-emakume ekintzaile haien ahaleginak argitu zizkigun eskola munduko zokorik ilunenak ere. Orduan ikasi genuen euskarak edozer lantzeko balio zuela, ezina ekinez eginez, lehen aldiz jende hark idatzitako hitzak irakurritz. Orduko Espainiako presidente Adolfo Suarezek esan omen zuen euskarak ez zuela balio Kimika Nuklearra lantzeko. Joserra Etxebarria fisikariak erantzun zion, horretarako bi gauza behar zirela argudiatuz: Kimika Nuklearra jakitea eta euskara jakitea.

Ikastolako ibilbidea bukatu genuenerako, konturatu ginen euskararen mahaiak ez zuela tente iraungo hanka bakarrarekin; lan-mundua, aisialdia eta beste hainbat hanka erantsi beharko genizkion. Eginkizun zail bat gainditu denean, zailagoari ekinez ikasten da ondoen, edonork daki hori, are hobeto euskaldunok, beti beharrean bizi garenok. Erasoak bata bestearen ondoren jasoko ditugu, betiko isilarazi nahi gaituztenak dauzkagu inguruan, gu baino indartsuagoak.

Alabaina, euskaraz bizitzen asmatu izan dugu oraindaino, orobat asmatuko dugu gaurgero, bistakoa da euskaldunon geneak hilezkorrek direla, nola bestela gu euskaraz mintzo oraindik, eta bai, jarraituko du euskarak mundua esplikatzeke hitzak ematen. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Danborrada
Unai Izagirre
Doinua: *Pello Joxepe*

Sasoi honetan guztia ez da

beheko sua ta gaztaina
sanandresake badatoz eta
presta zazue txanpaina
egun handia baino lehen ere
goza liteke han aina
danbor hotsekin heldu ohi zaigu
herrira festa usaina.

Udatik hasi ziren festa hau

udazkenera ekartzen
eta ikusi besterik ez da
zenbat jende den elkartzen
nahiz ta askotan fetxa hauetan
euria den iragartzen
barrutik busti xamar dagonak
ez du euririk igartzen.



www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK



Atari digitalak



Telebista

02



Estrategia eta
planifikazioa

03



Komunikazio
kanpainak

04



Edukien
sorkuntza

05



Webguneak eta
marketin
digitala

B

K

eto

✿

uH

nri

Zh

MILAR LARRAMENDI

Etiketresna elektrikoak



www.milar.es
webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA
943-85 18 97

dyson v8 absolute

399 €



dyson cyclone v10

absolute

499 €

AZKEN ALEAK!



dyson v11

absolute

599 €

BERRIENA!



MILAR LARRAMENDIN
AURKI DITZAKEZU
DYSON PRODUKTUAK



Izateko era.
Egiteko era.
Ekipo aproposak.
Esperientzia.



"Gure izateko eta egiteko erari ekipa aproposak eta esperientzia erantsiz sortzen da FK. Lasaitasuna ematen dizun diseinu eta inprimatze-zerbitzu bikaina.

Utzi gure kontu!"



DISEINU ETA INPRIMATZEA
gure kontu!



• Inazio Iriarte, 1
20720 AZKOITIA
• 943 85 20 52
• fk@fkgraf.com

